

EBAZPENA, Lanbide Heziketako sailburuordearena, KIROLENE KIIParen 2026-2027 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzko arautegia ematen duena.

CPED KIROLENE KIIParen 2026-2027 ikasturterako eskola-egutegia ondoko arau hauei lotuko zaie:

1.- Irakasleria guztia irailaren 1ean lanean hasiko da, ikasturte berriaren antolaketari dagozkion ekintzak eta jarduerak egiteko.

2.- Erdi-mailako eta Goi-mailako kirol-irakaskuntzetako mailei edo zikloi dagokien eskola-egutegia aplikatu beharreko ikasketa-araudian ezartzen den ordu-kopuru osoaren arabera zehaztuko da. Halaber, kontutan hartuko da, posiblea balitz, bai ondorengo irakaskuntzeta bai irakaskuntza hauetara sartzeko prozeduretarako ezarri diren data kontuan hartu beharko dira ikasleek prozedura horietan parte hartzeko duten eskubidea bermatuz.

3.- Oro har, Araubide bereziko kirol-irakaskuntzen jarduera akademikoa 2026ko irailaren 1ean hasi eta 2027ko ekainaren 30ean amaituko da, eta aldatu edo zabaldu ahal izango da, aldi baterako baldintzen mende dagoen kirol-modalitate edo -espezialitate bakoitzaren berezko eskakizunei jarraikiz, jarraian ezartzen diren baldintzetan:

3.1.- Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren hamaikagarren xedapen gehigarriaren arabera, administrazio eskudunek eskola-egutegia egokitu ahal izango dute, kirol-irakaskuntzen berezitasunak eta kirol-modalitate edo -espezialitate batzuetako irakaskuntzak, garatzen diren eremuaren arabera, behin-behinekotasun-baldintzen menpe daudela kontuan hartuta.

3.2.- Era berean, kirol-irakaskuntzen eskaintza-motari dagokionez, urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak ezartzen dituen malgutasun-irizpideak kontuan hartuta eta bizitza osoan zehar egiten den sustatze aldera prestakuntza lan-jarduerarekin edo beste jarduera batzuekin konbinatzeko aukera eskainiz, ikastetxeak, salbuespen izaeraz, kirol-modalitate eta -espezialitate jakin batzuetan ebazpen honetan ezarritako irizpideak eta betebeharreko baldintzak malgutzen dituzten eskola-egutegiak osatu ahal izango ditu, beti ere irakaskuntza bakoitzari dagozkion araudia betez.

3.3.- Ildo horretan, araubide bereziko kirol-irakaskuntzen ordutegi-plangintza, haien izaera espezifikoa eta aipatutako 1363/2007 Errege Dekretuan eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, kirol-modalitate edo -espezialitate bakoitzaren berezko eskakizunetara egokitzen den malgutasunez antolatu ahal izango da. Horrek barne hartzen du asteko edozein egunetan eskolak emateko aukera, igandeak barne, eta, oro har, beste irakaskuntza batzuetarako eskolarik gabekotzat jotzen diren aldietan, irakaskuntzen ezaugarriek hala eskatzen dutenean.

Eskolen araubidea lanaldi trinkoetan antolatu ahal izango da, egunean 10 ordu gehienez, baldin eta plangintza hori beharrezkoa bada kirol-arrazoiengatik edo prestakuntza espezifikoa. Nolanahi ere, oreka egokia bermatu beharko da prestakuntzaren eta atsedendien artean. Ildo horretan, gutxienez lau atsedeen-egun programatu beharko dira ondoko hamabost eskola-eguneko.

3.4.- Era berean, Prestakuntza Praktikoaren prestakuntza-modulua edo Prestakuntza Praktikoaren blokea (LOGSEren titulazioetarako izena) lantokien edo kirol-erakundeen lan-ordutegian garatu ahal



izateko, irizpide horiek aldatu ahal izango dira, eta, edonola ere, ebazpen honen 2. puntuari ezarritakoa betetzen dela bermatuko da.

4.- Ikasleriaren eskola-egutegiak, oro har, irizpide hauek bete behar ditu:

– Erdi-mailako irakaskuntzei dagozkien irakasaioak eta ebaluazio-saioak askoz jota 12 hilabetetan bukatzea eta Goi-mailakoak 24 hilabetetan.

– Eraginkortasun maila iraunkorra izatea lortzen duten irakastordu-kopuru onargarriak eta atsedeen nahikoak programaturako planteamendu metodologikoetan oinarrituta egotea, gutxienez asteko bi atsedeen-eguna aurreikusiz.

5.- Irakasaioak ematen ez diren ikasturteko beste egun guztietan, abuztuan izan ezik, zuzendaritza-taldeko kideren bat, gutxienez, beti izango da ikastetxean edo berehala ikastetxean izateko moduan.

6.- Nahiz eta ikasleek -banaka zein taldeka- azaldu ez, ikastetxeek irakasaioak eman egingo dituzte, programaturako ordutegi ofizialaren barne.

7.- Eskola-egutegia egiteko, dagokion urteko Autonomia Erkidegoko jaiegunen egutegi ofizialaren arabera jaiegun direnak izango dira jaiegunak, baita dagokion herriko eta lurraldeko zaindariaren jaiegunak ere. Jaiegun horietako bat ezin izango da inola ere zenbatu eskola-egunen zenbaketan, ezta eskolak benetan ematen diren egunen zenbaketan ere.

CPED KIROLENE KIIPk, nahi izanez gero, jaieguntzat jo ahal izango du zaindariaren jaieguna, eta dagokion egunean edo haren ordezkariak aukeratzen duen beste batean egin ahal izango du. Jaiegun hori ezin izango da inola ere zenbatu eskola-egunen zenbaketan, ezta eskolak benetan ematen diren egunen zenbaketan ere.

8.- Eguberritako oporraldiak 2026ko abenduaren 24tik 2027ko urtarrilaren 6ra bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

Aste Santuko oporraldiak, 2027ko martxoaren 25etik martxoaren 29ra bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

9.- Eskola-egutegiaren proposamena tramitatzeko 2008ko martxoaren 10ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Aginduko 9. atalean ezarritakoari jarraituko zaio, (2008ko apirilaren 25eko EHAA).

Egutegi proposamena ikastetxeko Eskola Kontseiluak egingo du, baina osatu gabe badago, irakasleen klustroak egingo du egutegi-proposamena.

2026ko ekainaren 1a baino lehen, ikastetxeko zuzendariak Hezkuntza Sailak horretarako espresuki diseinaturiko aplikazio informatikoa erabiliz hurrengo ikasturteko eskola-egutegiaren proposamena egingo du, beti ere Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dizkion argibideak jarraituz. Ikastetxeak aplikazio horretan ikastetxeko Eskola Kontseiluak eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen data adieraziko du. Eskola Kontseiluak eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen bilkurako akta ikastetxean bertan artxibatuko da eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura izango da.

10.- Erabaki honek ezartzen duena nolabait aldatzeko, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzaren onespena behar da. Horretarako ikastetxeko Eskola Kontseiluak alde aurretik Hezkuntza Lurralde Ordezkaritari

berariazko eskabide bat aurkeztuko dio, beti ere Ikaskuntza Berezien Zuzendaritzari jakinarazi eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren onespentxosten arrazoitua izan ondoren.

11.- CPED KIROLENE KIIPak finkatutako epealdiaren barruan beren eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez balu edo bidalitakoa onartzen ez balitz, dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkariek egindakoa onartu behar izango luke.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.

LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDEA
Jon Mirena Labaka Intxauspe